

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzaren Gela nagusian 1927'ko Azila'ren 24'an.

Emen aipatzen diran euskaltzaiñak bildu dira. Azkue, Urkijo, Landeñetxe, Kanpion, Olabide, Intzagarai, Altube, Lakonbe Etxegarai. Urgazlerik batez.

I.—Kisaldatzea egin bear da, araudiak agintzen duenez ta autarkitara jo da. Euskaltzainburugorako onelaxe datoz autarkiak.

Azkue jaunarentzat 8 utsean I.

Iker-sail buru izateko : Kanpion jaunarentzat 8 utsean I.

Yabon-sail buru izateko : A. Intzari 8 Urkijo jaunari I.

Zadorlari : Intzagarai 8 Etxegarai I.

Diruzaitzarako : Altube jaunarentzat 8 A. Intzarentzat I.

Gutunzaitzarako : Lakonberentzat 8 utsean I.

Beaz beste bi urterako Euskaltzaindi-kisa onela izango da.

Euskaltzainburu: Azkue. Iker-sail-buru : Kanpion. Yabon-sail-buru : A. Intza. Zadorlari : Intzagarai. Diruzai : Altube. Gutunzai : Lakonbe.

II.—Itz-beñiak sortu edo lendik diranak aztertzeko eta Iztegi beñiaren gertu-lanak eragiteko batzorde bat sortu ta batzorde auxe Azkue, Altube ta Eguskitzak egingo dute. Lotazilan astero bilduko dira Bilbo'n ta abek egingo duten lana Euskaltzaindiak ikusiko du Ilbeltzeko batzañaldietan. Ez da beaz Lotazilan batzañaldirik izango.

III.—Ormaetxea jaunaren idazki bat irakuñi degu ta idazki onen bidez, berak gertu duen iztegiaren antz-bide bat ematen digu. Idazki oñi len aipatu degun batzordeak erantzungo dio.

IV.—Kaietano Ituríoz apaiz jaunak Euskaltzaindiari idazki bat biali dio. Ez da aitzakotzat artu.

V.—Azkue jaunak irakuñi digu : *Apéndice a la Morfología : epéntesis*. Gero beste bat : *Repartición semántica* deitzen dana.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu degu batzaraldia.

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzaren Gela nagusian 1927'ko Azila'ren 25'an.

Aurêko agirian aitatu diran euskaltzain jaunak batzaraldian daude. Azkue maipuru. Otoitz egin da.

I.—Azkue jaunak txosten bat irakuñi digu, *r* nola ibili bear dan adierazirik : bai *konsonante* aurêan bai *vocal* tartean. Altubek ere bere aburua azaldu digu, ta *konsonante* aurêko *r* mañatua alpeñikakoa deritza. Luzaroan autuan egon ondoren auxe erabaki da :

«*R* mañatua, *vocal* artean bakañik azalduko da. Mañatua ere etofiko da itz aben azken-izkian : *Ur-* (ur-avellana) ta *Zur* (recto, económico, cicatero)».

II.—Badira euskal-idazleak, *guion* edo arbatxoa erabiltzen dutenak *declinacion* edo itzeko gorabere-tan : arbatxo ori garbi azaltzen zaie : edo *Bilbo*'ko edo *Agurea*'ren idazten dutenean. Euskaltzaindiak deritza, ez dala arbatxo ori *declinacion*-an jañi bear : ez dute beste izkuntzak erabiltzen, geon *declinaciona* bañio ilunagoa erabili-aren; eta etzuteren ere orêlako muturik erabili lengo gure idazle zañak. Gañera beste toki askotan erabili bear litzake senaz ibiltzekotan. Beste batzuek, *i* azkenki danean *y* egin oi dute,